

Napoleon-Bonaparten

PASTORALA

PAR

L'ABBÉ ITHURRY

Carel d'Arroux


Avec Photographie de l'Auteur



IMPRIMERIE A. FOLTZER
BAYONNE, RUE JACQUES-LAFFITTE, 9

1920

ATV
43489



NAPOLEON - BONAPARTEN

PASTORALA



L'ABBE JEAN ITHURRY

*Né le 19 octobre 1843 à Larressore,
Ordonné prêtre le 2 juin 1871,
Vicaire à Cambo le 8 décembre 1871,
Curé d'Arreau le 27 juillet 1882,
Vicaire-Coadjuteur de Sare le 1^{er} septembre 1891,
Curé de Sare le 29 avril 1892,
Béatifié le 22 juillet 1906.*



N. 500009334

Ann
43429

Napoleon-Bonaparten

PASTORALA

PAR

L'ABBÉ ITHURRY

Canté d'Arcue


Avec Photographie de l'Auteur



IMPRIMERIE A. FOLTZER

BAYONNE, RUE JACQUES-LAFFITTE, 9

1920



AVANT-PROPOS

Depuis quatre siècles au moins, les Basques de la Soule conservent l'usage de jouer de temps à autre, sous le nom de « pastorales », des drames tirés de l'Écriture sainte, des romans de chevalerie et de l'histoire légendaire. Cet usage s'est conservé aussi dans deux petites régions de langue française contigües à la Soule : dans le canton basco-français d'Aramits (vallée de Barétous) et dans la partie basco-française du canton de Navarrenx (vallée du gave de Mauléon, entre Lichos et Sauveterre). Mais il ne semble point que la Basse-Navarre et le Labourd aient jamais connu ces représentations villageoises, malgré l'assertion contraire du capitaine Duvoisin; assertion trop aisément accueillie par Fr. Michel dans son Pays basque.

En Soule, ces drames traditionnels ont gardé intégralement la forme ancienne du « mystère » ; dans la vallée de Barétous et dans la partie basco-française du canton de Navarrenx, les pastoraliers ont ordinairement rajeuni la forme de leurs pièces par des divisions en actes et en scènes, à la mode des tragédies classiques ; mais ce rajeunissement est tout extérieur, et, pour le fond, les pièces restent des « histoires » ou des « vies », sans aucune unité ni de temps ni de lieu.

Les acteurs sont les jeunes gens du village où se donne la représentation. Le théâtre est une estrade dressée sur la place publique, sans autres décors que des draps de lit

auxquels ont été épingleés des festons de feuillage et des bouquets de fleurs.

Ce fut très probablement au temps où M. l'abbé Ithurry était curé de la paroisse d'Aroue (1880-1891), qu'il eut l'idée de composer, sous le titre de Napoleon-Bonaparten Pastorala, la pièce dont nous publions le texte. Le village d'Aroue, quoique situé aujourd'hui dans le canton de Saint-Palais, était autrefois l'un des trois rics de la Basse-Soule ou Barhoue, Pettarra, (comportant Aroue-Etcharry, Gestas, Lohitzun, Osserain-Rivareyte et Oyhercq), et les représentations de pastorales n'y sont point tombées en désuétude.

Le sujet choisi par M. l'abbé Ithurry avait déjà été traité par les pastoraliers de la Soule et des cantons franco-basques. Vers 1835, J.-P. Saffores, de Tardets, avait composé un Napoléon qui met en scène l'histoire de l'empereur depuis le couronnement jusqu'au départ pour l'île d'Elbe. Vers la même époque ou un peu plus tard, un poète anonyme du canton de Navarrenx écrivit un Bonaparte, campagne d'Italie (1796-1797), qui met en scène la lutte triomphante des armées françaises contre l'Autriche. Enfin, à une date que nous ne saurions préciser, un autre poète de la vallée de Barétous versifia un Bonaparte, campagne d'Italie (1800), dont l'épisode principal est la victoire de Marengo. Mais M. l'abbé Ithurry, au lieu de restreindre son œuvre dramatique à une seule partie de la légende napoléonienne, s'est plu à embrasser cette légende tout entière, non pas, bien entendu, pour la raconter comme une sèche chronique, mais pour en dégager une moralité chrétienne. Voici l'analyse sommaire de cette œuvre, qui compte, le long de huit cents vers, une trentaine de rôles.

Après le prologue qui, comme d'habitude, résume l'ensemble du sujet traité, la pièce débute par une prière d'actions de grâces dans laquelle Napoléon rappelle sa naissance en Corse; son entrée à l'Ecole de Brienne; son rôle au siège de Toulon; sa nomination de général à l'âge de 27 ans; sa campagne d'Italie; sa réception

triomphale à Paris ; sa campagne d'Egypte ; son Consulat ; le rétablissement de l'ordre ; la rédaction du Code ; le Concordat, etc.

Ensuite le drame commence par la notification du sénatus-consulte. Conjuration de Pichegru et de Moreau ; guerre contre l'Autriche ; victoire d'Austerlitz ; guerre contre la Prusse (Jena, Eylau) ; guerres de Portugal, d'Espagne, d'Autriche (Wagram) ; traité de Vienne ; mariage avec Marie-Louise ; excommunication ; emprisonnement du Pape ; guerre de Russie ; incendie de Moscou ; campagne de France ; adieux à l'armée ; départ de Fontainebleau pour l'île d'Elbe ; les Cent Jours ; guerre contre l'Europe coalisée ; Waterloo ; départ pour Sainte-Hélène. Mort chrétienne, après adieux et remerciements à Montholon.

Il est à remarquer que la « satanerie » tient dans cette pièce une place importante. Satan y est l'inspirateur de toutes les mauvaises actions. Furieux du bien fait par Napoléon, qui a mis fin à la Terreur et restauré le culte catholique, il cherche à faire disparaître ce partisan de la cause de Dieu : d'où le complot de Pichegru et de Moreau, ainsi que les nombreuses guerres. Lorsqu'il voit que, par une protection spéciale de Dieu, Napoléon échappe à tous les dangers et grandit sans cesse dans l'estime publique, il change de batterie. Se présentant à Napoléon, pendant le séjour que celui-ci fit à Bayonne, sous l'apparence d'un touriste venant d'Espagne, il lui fait croire que les Espagnols, fatigués par les luttes intestines de la famille royale et pleins d'admiration pour sa gloire, le désirent comme roi ; qu'en outre le monde déplore qu'il n'ait pas de postérité, et que, par conséquent, il devrait prendre une autre épouse. Napoléon, ayant suivi ces funestes conseils, est abandonné de Dieu, et telle est la cause de tous ses malheurs. Triomphe de Satan, à qui pourtant Napoléon échappe par sa fin chrétienne.

Tandis que toutes les pastorales d'origine populaire sont écrites en dialecte souletin, c'est en labourdin, de son terroir natal de Larressore, un peu mêlé cependant, que

M. l'abbé Ithurry a écrit la sienne ; et le système de versification qu'il y a employé n'a aucun rapport avec le « verset » des pastorales souletines. Ce verset, qui paraît dérivé du verset biblique, est une petite strophe à laquelle les copistes donnent tantôt la forme d'un distique, tantôt la forme d'un quatrain ; mais, dans ce dernier cas, il n'y a que le deuxième et le quatrième vers qui riment. Au contraire, les vers de M. l'abbé Ithurry ne sont point groupés en strophes ; ils imitent les alexandrins français et riment deux par deux.

Il résulte du prologue de Napoleon-Bonaparten Pastorala que cette pastorale a été jouée par les jeunes gens du village. On s'étonnera peut-être qu'un drame écrit en dialecte labourdin ait été joué par la « jeunesse » d'Aroue, où le dialecte est mi-partie souletin et bas-navarrais ; mais il n'y a rien là d'extraordinaire. Les dialectes du Labourd, de la Basse-Navarre et de la Soule ne sont pas si différents que les Basques de l'une de ces trois provinces ne puissent comprendre aisément les dialectes des deux autres. Par exemple, lorsque des prêtres d'origine labourdine sont envoyés comme curés dans des paroisses de la Soule, ils continuent à y parler et à y prêcher en labourdin ; et peut-être leurs paroissiens pensent-ils parfois que ce parler n'est pas bien élégant, mais ils n'ont aucune difficulté à en saisir le sens.

CHANOINE J.-B. DARANATZ,

Secrétaire de l'Évêché,

Bayonne

NAPOLEON-BONAPARTEN

PASTORALA

NAPOLÉON.	LES MINISTRES.
JOSÉPHINE.	LE CAPITAINE.
MARIE-LOUISE.	LES SOLDATS.
HAURRA.	LOUIS XVIII.
PICHÉGRU.	AITA SAINDUA.
MOREAU.	François.
CAMBACÉRES.	ALEXANDRE
MURAT.	GUILLAUME.
EUGÈNE DE BEAUBHARNAIS.	WELLINGTON.
BACIOCCHI.	CHARLES.
JOSEPH.	FERDINAND.
LOUIS.	SATANAK :
JUÑOT.	<i>savoir,</i>
RADET.	GALTCHAGORRI
NEY.	<i>et al</i>
MONTHOLON.	MUTHILA.



LEHEN PEDEIKUA

Erdian.

Egun on guzieri, Jaunak, anderiak.
Zuetarik ohore du gure herriak.

Eskuin.

Hemengo gazteriak zuen ohoretan,
Pastoral bat nahi du enlan egun hantuan.

Erdian.

- 5 Napoleon Bonapart da gure suyeta
Haren parerikan nihoz izan ez da.

Esker.

Hastean bera duzue entzunen erraiten
Lehen urtheak nola iragan dituen.

Erdian.

- Gero duzue ikhusiko nola delosian,
10 Nahi izan dakoten bizia eraman.

Eskuin.

Gero dutenean errege hautatu
Nola Aita Sainduak dnen kontsekratua.

Erdian.

Nola harek dituen, hanitz guduketan,
Europak'erregeak eman zango petan.

Esker.

- 15 Nola zuen harek izan flakezia
Bazterrerat uzteko lehen emaztia.

Erdian.

Aita Sainduak hori bētu condenatzen
Napoleonek du lura preso harrarazten.

Eskatin.

- Haren armada dute orduan garhaitzen
20 Eta bera presonier Elberat igortzen.

Erdian.

Handik eskepaturik Pariserat yeiten
Eta etsaien contra gerilarat phartitzen.

Esker.

Trahizonez berriz bentzutua bera
Preso da igorria santa Helenera.

Erdian.

- 25 Ikhousiko duzue isla hartan hiltzen
Eta mundnari etsenplu emaiten.

BONAPARTEK.

(*Belhauniko yarririk*).

Ene Jainko handia eskerrak dereitzut
Zeren orai artino lagundu beinuzu.

(*Chutitu eta*).

Aita bakezko yuyec Corsan nuzu sorthu (1769)

30 Soldado egiteko eskoletan sartu (1779)

Lehen aldiz Toulonen gerlan nintzen hasi

Peza tiroka nuen hiria herrautsi (1793)

Balentzia hand'hori nahiz saristatu

Berehala yeneral nunten izendatu

35 Hogoita zazpi urthe doidoia nintuen

Italiako geriaz khargatu beinurten

Berrogoi mila gizon erdi bulnziak

Ziren ene azpiko soldado guziak.

Aldiz Autrichanoak, Beaulieu antzinako,

40 Lau hogoi mila ziren ene baratzeko.

Montenoten, Milesimon, Degon eta Mondovin

Etsai guziak laster bentzutu nituin (1796).

Bortz armada handiak garhaitu ondoan

Franzian nintzen sartu trionpha handian (1797)

45 Hogoitamasei mila gizon ene peko

Manua emana zait Egyptoa yoaitoko (1798)

Alexandri eta Caira laster ditut hartzen

Egyptok'eremua trionphan kurritzen

Lastre nuen hartuko Egypto guzia

50 Armadala ez balitz yen izurritia (1799)

Egyptotik Franziat ninzenean sartu

Bozkarioz ninduzten consul izendatu (1800)

Gure contra da berriz Europa chutitzen

Italiarat buruz nuzu abiatzen

55 Ez hotzak ez goseak ez nuté baratzen

Elhur metak zilhatuz Alpak iragaiten (1800)

Hogoit'hamar egunez, zenbeit gizonekin,

Hamar aldiz etsaia herrautsi gnuin (1800)

Gerlatik nintzenian etcherat bihurtu,

60 Franziako aferez nuzu ocupatu,

Haren behar guziak chehekí bilhatu,

Tropak ditut hazkartu, legeak berritu,

Ongia saristatu, gaizkiari yasarri,

Ahal bezenbatian ordre'ona czarri (1801).

65 Ene Jainko handia etzaitut alantzi

Zure Elizak ditut nik zabularazi

Zure aphezak ere yoanak ihesi

Gogo onez beititut berriz sarrarazi (1802).

(*Belhauniko*).

Hartarakotz zutan dut ene esperantza

- 70 Orai dino bezala beira nazu ontsa.
Zihaurek hitz emanaz orhoitzite, Jauna!
Ez duzula utziko zuri fidel dena.

Galtchagorri (edo Satan) eta muthila sartzen dira dantzan eta dantzatu ondoan.

GALTCHAGORRIK.

- Muthila, entzun duka, Bonapart mintzatzen
Jainkoa baithan zinez omen duk fidatzen
75 Ikhusiko diagu, hik eta nik, ago
Bonaparte ala ni giren hazkarrago
Jadanik egin zaiztak injurio gaitzak
Libraraziz aphezak, zabalduz Elizak,
Etzoat sekulan hori barkhatuko.
80 Hobira artino nuk hari yasarriko
Segur ene nahia egiten ez badu
Bizia'eta arima beharkoitik galdu.

Galtchagorri eta muthila ihesi dhohazi, Pichegru eta Moreau sartzen ikhoustearekin.

MOREAUK.

- Entzun ezak, Pichegru, zer zauk Bonapartez
Sozok nola den hari goratu beharrez
85 Hik eta nik ere maithiatuz Franzia
Irriskatu diagu frangotan bizia
Ba guk ere eginez etsaiari buru
Hamitz aldiz Franzia diagu salbatu
Halarik ere guretzat ez die eskerrik.
90 Cayeneat hute igorri preso'estekaturik.

PICHEGRU.

- Zangopetan ezarriz guzien buruak
Bonapart nahi lukek iragan tronurat
Beinan tronpatuko dñk yenen dñk orena
Ikhousteko badela bethi yaunen yauma.
95 Ene Moreau maitia, betbetan ganza bat
Debruak zaitak orai emaiten bururat
Bate luzatu gabe, ene adichkidia,
Bonaparti dezogun khen bere bizia.
Zez zauk?

MOREAUK.

Hire errana ontsa hartzen diat (1804)
100 Goazen berehala gauzen pharatzerat.
Moreau eta Pichegru atheratzearekin, Galtchagorri eta muthila sartzen dira dantzan.

GALTCHAGORRIK.

- Muthila, oraikotik etzezalkek falta
Bonapartek behar dñk segur bere paga

Apho bisaia haren uste zian naski
Ez ninzala izanen aise haren nauzi.

MUTHILAK.

- 105 Yenden contra handi da zure botheria
Jainkoak permetitzen badauzu eitia
Beinan ez du emaiten zuri bothererik
Galtzekotzat seculan hari fidel denik.

*Galtzagorri eta muthila ihesi dohazi ikhoustean Bonapart sartzen.
Bonapart sartzen da eta yartzen da cadira jautil eder batean.
Instant baten buruan sartzen da Cambaceres eta Bonaparten antzinan chutik mintzatzen da diolarik.*

- 110 Zuri othoitx handi bat eskaini beharrez
Frances guziek dugu gauza bat bilhatzen
Franziako yendea urus bizi daiten
Hortarakotz huna zer zaunkun iduritu
Enperadoregoa behar duzu hartu.

BONAPARTEK.

- 115 Cambaceres, hauche dut bilhatzen bakharrik
Franziak ez dezan deus izan makurrik
Haren onarendako oroitut eginen
Behar balitzaut ere bizia emanen
Uste dutenaz geroz haren ohorea
120 Dela har dezadan Enperadoregoa
Hartuko dut gogotik condizione huntas
Populu guziak ontsa hartzekotan (1804).

MURAT sartzen da presan eta dio.

- Bonaparte, ziuzte hunakoan hiltzer
Eta eskepatu zira Jainkoari esker
125 Pichegruk eta Moreauk, bere delosjan,
Hilzaileak daitzute ezarri bidean
Uruski bertz'aldetik hunat zira heldu
Pichegru eta Moreau diuzte baratu.

BONAPARTEK.

- Zer! uste dute naski ni hilten banute
130 Hek direla izanen Franziaren yabe
Ez heyen beinan ene alde da Franzia
Hura ene bezala haren niz guzia
Zuhoni, Cambaceres, hor zira lekhuko
Franziaren bihotza dela enetako
135 Pichegru eta Moreau onts'estekaturik
Ekhar ditzazue bere presondeitik.

Hiruak atheratzen dira eta Galichagorri sartzen da muthillarekin.

MUTHILAK.

- Galtchagorri abila! erraten nauntzun nik
Yende zuzenen contra ez duzu indarrik
Lanyeretik Bonapart eskepatu zautzu
140 Orai ere Jainkoak ontsa du lagundu
Bertze zenbeit amarru dezozu prepara.

GALTCHAGORRIK.

- Egia diok, Muthilia, Bonapart malzurra
Orainokoan zautak bethi eskapatzen
Jainkoak bereziki hora dik beiratzen
145 Ororen gatik ere ez diat etsitzen
Jo artimo etzioat pausurik emanen
Zer nahi gostarik ere behar diat aurthiki
Segur eginen diat emeki emeki.

Biak badohazi ihesi. Bonapart eta Murat sartzen dira.

BONAPARTEK.

- Zer da hau holakorik, nitaz delos dira
150 Frantziaren etsaiak emanez azpira
Zeren dudan zaphatu heyen urgulua
Eta hanitz goratu gure populua
Hortan erradak, Murat, nik duta hobena
Zertako ez die egin nik egin dudana?

Bi soldado eta capitain bat sartzen dira, Moreau estekaturik ekhar-tzen dutelarik.

BONAPARTEK.

- 155 Hor hiz beraz, Moreau, traidore pendarta
Ene hilarazteko izan duk kopeta
Non da Pichegru?

CAPITAINAK.

- Jauna, yuanden gauean du
Presondegian bere burua urkhatu.

BONAPARTEK.

- Judasek bezala hark beinu trahitu
160 Hark bezala ere du bizia finitu.
Eta hi, Moreau, ene geriako laguna
Hainbertze behar orduz lagundu hautana
Zerk hu ekharrarazi niri yasartzera
Tronperietan niri bizia khentzera
165 Errak, Moreau, seculan nork zikeyan erran
Hik niri herioua behar huila eman
Halaik ere ez daitz bizia khenduren

- Hik niri egin nahia ez daiat eginen
Habit ene bichtatik deraiat manatzen
170 Frantziatik bethikotz hauet desterratzen.

Bi soldadoek eta Captainak eremaiteen dute Moreau canporat,

BONAPARTEK.

- Ez niz gizonen beldur, alde dut Jainkoa
Hark baratzen du ene etsaien besoa
Hark finkatuko deraut buruan khoroa
Ene Murat maitia, hun'ene gogea
175 Ene khoronatzeko nahi diat osoki
Clovisen exenphuari ahalaz yarraiki
Harek bezala dfat othoitzuk'Eliza
Ene enperadoregoa dezan benedica
Elizaz nahi diat izan sakratua
180 Erramatik yenaziz ba Aita Saindua
Bate luzatu gabe, hi ene coimata
Erromara hiz yoanen laster haren cherkha
Presenta esok ene errespetu ona
Errok zer den hartarik nik nahi nukena
185 Nola hora dutadan umilki othoizten
Ene kontsekratzera othoi yen dadien.

MURATEK.

Egon zite deskantsu, zuk erran bezala
Orai berean nuzu yohan Erromala.

Aheratzen dira biak. Galtchagorri eta muthila sartzen dira eta luzaz dantzu ondoan.

GALTCHAGORRIK.

Zer diok Bonapartez? hik ene muthila.

MUTHILAK.

- 190 Nitaz bezala zutaz trufatzen hai dela.

GALTCHAGORRIK.

Ago, ez duk oraino heldua chedeta
Hanitz egun gabe dik izanen ayuta.

MUTHILAK.

Hola diozu bethi, beinan zer da gero?
Mehatchu hoiak dute uzker bat balio.

GALTCHAGORRIK.

- 195 Ah! hizan bezalako ahalge gabia.

MUTHILAK.

Ah! ziren bezalako ontsa ikhasia.

GALTCHAGORRIK.

Hi bizan bezalako, zirzila, ordia.

MUTHILAK.

Zu ziren bezalako, gisako, eztia.

GALTCHAGORRIK.

Diok ene mehatchuek ez dutel'indarrik

- 200 Orai artinokoan ez beita'efeturik.
Beinan ago tranquilki yenen duk orena
Ikhousiko beita ez dudum arrazoima
Bonapartek behardik oraintchet dantzatu
Haren contra'erresumak ditiat altxatu
205 Autrichianoekin Rusianoak
Preparatzen haritik bere soldadoak
Biak elgarrekin chutiturik betan
Laster hasiren dituk Bonaparti gerlan
Ah! orduan orduan zinak eta minak.

MUTHILAK.

210 Haiziak yuanen ditu zure elhe'arinak.

Biak eskapatzen dira. Bertze hanitzekin sartzen dira Bonapart, Josephina eta Aita Saindua.

AITA SAINDUAK, tronuan yarri ondoan.

Bonapart ene haurra, gogo onez nuzu

Zuk hala othoizturik Pariserat heldu

Enperadore zitut egun sakratuko

Ene eskutik duzu khoroa hartuko

- 215 Beinan lehenik zuri hau dautzut galdatzen
Elizari dokozu bakea emanen?

BONAPARTEK.

Bai, bihotzetik dautzut hori hitz emaiten

Zure zerbitzaritzat nuzu declaratzen.

AITA SAINDUAK.

Eskerrak Jainkoari, hola denaz geroz

- 220 Hurbil ziezte hunat zuen bihotz oroz (1804).

Bonapart eta Josephina hurbiltzen dira, belhaunikatzen eta Aita Sainduak konsekratzen olio sainduaz eta khoronatzen. Oro atheratzen dira, Galtxagorri eta muthila sartzen dira dantzan.

MUTHILAK.

Behazu, Galtchagorri, Bonaparte bethi

Beheitxi yuan beharra nola dohan goiti.

Tronurat igaitian izan du curaia

Izentzat hartzekotzat Napoleon handia.

GALTCHAGORRIK.

- 225 Handi izanik ere yenengdu orena
Gerthatuko beitzaio nik erran dudana.

Luzaz dantzatu ondoan bodohazi ihesi. Napoleon sartzen da eta yar-
tzen. Gero sartzen dira Eugene de Beauharnais, Baciocchi oficiera,
eta bere anaya Joseph, eta Louis, bertze hanitz antzindariekin.

BACIOCCHIK.

- Italiako yende ororen nahia
Da zuretzat dezazun accepta' Italia
Franzian ziren bezala zu Enperadore
230 Italiak ere zitu egiten errege.

NAPOLEONEK.

- Ene coinat Baciocchi, Italia holetan
Emaiten denaz geroz ene eskuetan
Haren nahi osoa ontsa bethetzeko
Haren khoroa diat buruan yauntziko
235 Ez bainaiz nihau harat yuanen ahalko
Eugene'ene suhia hi haut igorriko
Eta hi ene coinata orai berian hemen (1805)
Pionbinoko printze hi haut izendatzen.

Orduan campoko aldean agertzen dira François II, Autrichiako enpe-
radorea, eta Alexandre, Rusiako enperadorea.

NAPOLEONEK.

- Zer da hau holakorik, ene Marechalak,
240 Horra hor non zaizkigun hurbiltzen armadak
Hauk Autrichianoak horiek Rusoak
Bentzutu nahi tuzte ene soldadoak.
François Autrichiakoa, nahi huke eiki
Franziako tronutik ni erorrarazi
245 Eta hi Alexandre hi Rusiakoa
Begi gaichtoz derautak ikhousten khoroa
Armadak dituzue batetara bildu
Ni nahiz gisa hortan bethikotz lehertu
Ez duzue beldur eiten ene gizoneri
250 Holako etsai baten badakite berri
Bat hamarren contra izanikan ere
Hurbil ziezte hunat badugu curaye.

François eta Alexandre teatrera itzaiten dira bere soldadoekin eta ger-
lan haizan ondoan Napoleoneren contra bodohazi ihesi.

NAPOLEONEK.

- Content mizu zuitaz ene'adichkidiak
Ihesi beittitugu igorri etsaiak
255 Egun urthe bethe niz errege sakratu

Austerlitzet dut egun etsaia lehertu (1805)
Mundua mundu deno, egungo gudua
Izanen da orotaz hanitz bantatua.

François II eta Alexandre hurbiltzen zaizko.

FRANÇOIK.

Ba garhaitu gaituzu, Napoleon handia
260 Ereman deraukuzu bier bitoria
Ikhouston dugu ontsa nausitu zirela
Zuri dela egiten alferretan gerla.

NAPOLEONEK, *yurri ondoan.*

Zer zinukete beraz orai desiratzen.

ALEXANDREK.

Bakia derautzugu, othoi, galdegiten.

NAPOLEONEK.

265 Ba emaiten dautzuet condizione huntan
François hire lurretaik pharte hartzekotan
Joseph ene anaya, epherikan gabe,
Hi hout izendatzen Napleko errege
Hi Louis ene aneya memento huntarik
270 Bataviako errege hut izendaturik (1805).

Oro atheratu ondoan sartzen dira Galtchagorri eta muthila.

MUTHILAK.

Aldi huntan oraino, Musde Galtchagorri,
Napoleon etzautzu saretan erori.

GALTCHAGORRIK.

To oraikoan zinez nausitzen ez banitz
Ene muthila, nuk tronpatuko hanitz
275 Bertze erresumekin accortik Prusia
Napoleonen contra duk altxatzten hasia.

Luzet dantzatu ondoan badohazi thesi. Napoleon sartzen da bere soldadoekin.

NAPOLEONEK.

Ez derautet seculan emanen bakherik?
Bat garhaitu orduko bertze bat dut chutik
Angeles zakurrekin aditurik elgar
280 Prusianoek dautet gerla egin behar
Frederiko-Guillaume hang'Enperadoreak

- Ene atakatzeko baditu chedeak
Ene gizon maiteak ez izan lotsarik
Holako bat duzue bentzatu yadanik
285 Zuik bezalakoak ditudano gerlan
Etsaia beharko da ihesari eman.

Prusianoak sartzen dira eta Napoleonekin batailatu ondoan badohazi ihesi.

NAPOLEONEK.

Prusianoak oro ditugu garhaitu (Iéna 1806)
Berlin hiri capitalian behar gira sarthu.

Napoleon curri ibili ondoan bere soldadoekin yartzen da.

NAPOLEONEK.

- Ene etsai orotan ikhousten dut ontsa
290 Handien handiena dela Angelesa
Harek ditu bertzeak azpitik pusatzen
Niri gerla eiteko dirua emaiten
Urez inguratua alde orotarik
Badaki ezin hurbil naitela hartarik
295 Beinan tronpatuko da yena da orena
Gosez hilarazteko hartzen dut moyena
Erresuma orori hau diotet manatzen
Angeles untzieri portuak hets ditzaten
Gisa hortan portutan ez hartuz untziak
300 Angeleterra laster hilen du goseak (1806).

MURATEK. presan sartzen delarik.

Berlineko hirian zu sartzearekin
Prusiako erregek du Rusiat'hes egin
Alexandreri dio laguntza galdu
Et'hau da zure contra berehala heldu.

NAPOLEONEK. chutitzen delarik.

- 305 Lehen ere'Alexandrek bazaik bere gostuz
Ene contra gerletan ez del'izan urus
Orai'e balim bada enekin negurtzen
Bertze orduz bezala zakok doluturen.

Alexandre sartzen da soldadoekin eta Napoleonekin guduakatu ondoan badoha ihesi.

NAPOLEONEK.

- Ene gizon maitiak hau da bitoria (Eylan: 1807)
310 Huntan derautazuet salbatu bizia
Elizako dorerra nituzun igana
Handik gidatzekotzat guduakako plana
Rusoak hilheriaz zituzun yabetu
Hanche behar ninduzten preso hatchematu.

315 Hori duzuenean uruski ikhousi
Lehoinen pare ziezte baionetian hasi
Etsaia hileritik aurthiki ondoan
Besoetan nuzue ereman airean.

ALEXANDRE *sartzen da eta dio.*

Napoleon heldu niz burua behera
320 Ezin menturatuz zure antzinera
Orai duela bi urthe orhoit nuzu ontsa
Austerlitzn nerautzun eman ene hitza
Bethikotz ginuela bakea egiten
Ez nintzela seculan zure contra yinen
325 Beinan, dohakabea! ene hitza dut yan
Eta zure contra niz abiatu gerlan
Berriz garhaitu nuzu, hau d'ene chedea
Zurekin nahi nuke bethikotz bakea.
Othoi ontsa harrazu.

NAPOLEONEK.

Aski elh'erranik
330 Sobra malsurkeria hik dautak egunik
Izanen duk bakea condizionetan
Prusiaren sathi bat ene'izatekotan
Eremu hora diat Westphalie deituko
Han en'anaya Jerome erreg'esarriko.

ALEXANDREK.

335 Erran duzun bezala oro ontsa dira
Nahi nuke ezarri ene sinadura.

Sinatzen dute eta gero oro dira otheratzen. Galtchagerri eta muthila sartzen dira.

MUTHILAK.

Ene nausi handia erraten nuntzun nik
Zure elhe guziek ez dute'incarrík
Egin ahalak oro zuk egunik ere
340 Napoleonek ez du kalterik batere.

GALTCHAGORRIK.

Harritzeko dík nola hainbertze denboraz
Ez dezaketan hora saretan sarraraz.

MUTHILAK.

Zer, hari othe zaitzu indarrak ttipitzen
Ez ahal zira hasi puchka bat chahartzen.

GALTCHAGORRIK.

345 Ez, bethi bardin gazte nuk ni, Galtchagerri,
Hemendik harat ez nuk fidatzen nihori

Napoleon orai beita heldu Bayonara
Nihoni yuanen nuk haren mintzatzera
Bertzez ezin egina nihauk diat eginen
350 Ikhousteko zoin giren abilago'izanen.

Lazaz dantzatu ondoan badohazi ihesi. Napoleon sartzen da bera eta yartzen. Gero heldu da Junot.

JUNOTEK.

En'Enperadorea zure erranera
Berehala ninduzun yuan Portugalera
Hogoita zazpi mila gizonen buruan
Sarthu izan nuzu Lisbonako'hirian (1807).
355 Portugale guziaz nausi yarri nuzu
Eremu hura ere zurea dukezu.

NAPOLEONEK.

Ontsa egin duk Junot ene marechala
Oro egin heitituk nik erran bezala
Niri fidel dagona ez beitut ahantzten
360 Portugaleko nausi hi haut izendatzen.

JUNOTEK.

Espainian igaitean sarthu niz Madrilen
Han zer ikhousi dudan derautzut erranen
Charles hango erregek, ez dakit zertako,
Ez luke izan nahi errege gehiago
365 Hartakotz nahi luke oraintchet berean
Bere seme Ferdinand ezarri tronuan
Beinan aita semiak ez ditazke accort.

NAPOLEONEK.

Nik erraten dudana eginezak, Junot,
Orai berian hadi pharti Madrilera
370 Errege aita semeren laster mintzatzera
Errotet ene phartez yen ditezin huna
Nik dudala entzunen heyen arrazoina.

Junot phartitzen da. Galtzagorri sartzen da pelegrin gisa bezti.

GALTZAGORRIK.

Napoleon handia othoi barkhadazu
Zure gana yeitera banaiz ausartatu
375 Oroz da'ezagutua zure ontasuna
Ontsa hartzen duzula presuna chumena
Horra zertako naizen zure gana heldu
Nahi nuke zerbitzu handi bat galdu.

NAPOLEONEK.

- Nor zira zu, gizona, nondik heldu zira
380 Zerk ekharri zaituene antzinera.

GALTCHAGORRIK.

- Ni naiz gizon bat bethi curri nabilana
Egoitza harturikan nihon ez dudana
Egun heinen bihar han orotan nabita
Errankizun contseilu hoberenen bilha
385 Curritu dut Franzia bai eta Italia
Angeletarre Greca Rusia Prusia
Hitz batez erraiteko Europa guzia
Orotan hatzeman dut hanitz malezia
Nahi nituzke zenbeit contseilu zutarik.

NAPOLEONEK.

- 390 Hoin kurrituak ez du contseilu beharrik
Nitaz zer entzun duzun zure piaietan
Behar derautazu zuk berehala erran.

GALTCHAGORRIK.

- Orai iragan nuzu Espainian gaindi
Errege aita semiak direlakotz handi
395 Populu guzia da hanitz nardatua
Zutaz nahi likezi izan manatua
Bertze erresumez egiten duzuna
Espainiaz ere yabe zite, Yauna.
Gauza huntaz dira oro penatuak
400 Ez dautzulakotz eman seme bat Jainkoak
Pena handirekin orok dute ikhousten
Zur'arraza handia zurekin finitzen
Zu mundu guziko gizon bandiena
Hainbertze erresumen nausi eta yauna
405 Hiltzeko mementoan hanch' obligatua
Arroz bati uztera zuk duzun tronua.

NAPOLEONEK.

- Ene adichkidea aski zia mintzatu
Zuk erran guziak beititut adjitu
Horiez zer derautan erraiten goguak
410 Ikhoustera dautzue emanen gerouak.

Galtchagorri atheratzen da. Charles eta Ferdinand sartzen dira Muratekin.

CHARLESEK.

- Egun on, Napoleon, zuk erran bezala
Aita semiak gira heldu Bayonala
Huna gure artian zer den iragaiten

- 415 Espainiak duelakotz omen desiratzen
Ni ene tronutikan nahi nute yautsi
Eta ene semia hartan yarrarazi.

NAPOLEONEK.

- Ene eskuetara utzazni afera
Hobe duzue eitia ene arabera
Zuk Ferdinand gaztia, huna abisua
420 Ez zazula accepta aitaren tronua
Eta zuk aldiz, Charles, chuhurra baduzu
Zure'erregetasuna enetzat utzazu
Hola aita semiak elgarri sedituz
Hemen biziko ziezte tranquil eta urus
425 Hortakotz bakhotchari nik dautzuit urtheka
Ehun mila libera emanen errenta.

CHARLESER eta FERDINANDEK.

Hola duzunaz geroz zure gutizia
Nahi duzun bezala aski'uzu eitia (1808).

NAPOLEONEK.

- Murat ene coinata, memento huntarik
430 Napleseko errege hiz izendaturik
Aldiz Joseph anaya han dena aurkhitzen
Espainiako errege diat izendatzen
Errok orai berian sardain Espainian
Lehenbain lehen yar dain nik eman tronuan.

Oro atheratzen dira. Galtchagorri eta muthila sartzen dira.

GALTCHAGORRIK.

- 435 Ikhouston duk, muthila, oraintchet nuk hasten
Napoleoni zenbeit huts eginarazten
Emekitto saretan diat sarrarazi
Gauza zuzen gabebat zioat einarazi
Gerot'aintzinago diat yuanaziko
440 Huts handiagoetan zaitak eroriko.

MUTHILAK.

Zuk Bayonan erranen hasi duzu eiten
Gerot'a gehiago duzu lerraturen.

Luzaz dantzatu ondoan badohazi ihesi, Napoleon soldadoekin sartzen
da eta yartzen. Gero Joseph heldu da.

NAPOLEONEK.

Ene aneya Joseph, nola hitzaut heldu
Espainian sartzia dereiat manatu.

JOSEPHEK.

- 445 Espainian sarthu niz zuik erran bezala
Doidoia hamar egun zuen han nintzela
Populu guzia ni han ikhoustean
Chufitu izan da harmak eskoetan
Diote ez dutela nahi erregerik
450 Non ez den Espagnola beren arrazatik
Charles eta Ferdinand Bayonara deithu
Omen dituzu eta ciberki tronpatu
Nahi izan gituzu heyeri bihurtu
Beinan Dupont eta ni gaituzte bentzatu.

NAPOLEONEK.

- 455 Joseph, izaitekotzat hiretzat deus onik
Espainiarat diat yen behar nihonik
Beharko die ontsa ikhousi kokuek
Nola dakierten gerlan ene soldaduek
Orai berian heldu nuk Espainiara
460 Hi han tronu gainean berriz ezartzera.

Napoleon bere soldadoekin curri abiatzen da. Espagnolak heldu dira eta Napoleonkin batallatu ondoan Espagnolak badohazi ihesi.

NAPOLEONEK.

Biba zuek eta ni soldado maitiak
Hun'orduko ditugu bentzutu etsaiak (Somma-Sierra 1808).
Ene anaya Joseph goazen Madrilera
Han dereint khoroa emanen burura.

Gizon bat sartzen du letra batekin. Hura irakurtu ondoan.

NAPOLEONEK.

- 465 Ez dut beraz nehondik bakerik izanen
Bat finitu orduko bertze gerla phizten
Zer da hau holakorik, soldado maitiak,
Bethi izanen dira enetzat etsaiak?
Espainian ikhousiz ni ocupatia
470 Autrichako erregek hautsi dait bakia
Ene erresumetan hari duzu sartzen
Denbora galdu gabe haren contra guazen.

Napoleon bere soldadoekin puska bat curritu ondoan sartzen dira Autrichianoak. Hauk Napoleonkin batallatu ondoan badohazi ihesi.

NAPOLEONEK.

Gizon paregabiak hau da bitoria (Wagram 1809)

Ez da sobera eder ni hauk erraitia

- 475 Mundu guzian ez da, ez izan gizonik
Zueri eta miri gerlan yuanen duenik.

François sartzen da.

NAPOLEONEK.

- Autrichako errege hunat hurbil adi
Errak, François, hi'ala ni othe gituk handi
Orai duela lau urthe, ez hiza orhoitzen
480 Hire'armada nuela lehertu'Austerlitzten
Orduan gizian ein bethikotz bakia
Zerk duk beraz pentsatu niri gerf'eitia.

FRANÇOIS.

- Napoleon handia othoi barkhamendu
Ez dakit zerk nuen hoimbertze itsutu
485 Non yanik ene hitza, nizan bezalako,
Kopeta izan beitet gertza egiteko.
Halarik ere, othai, bakia ein dezagun.

NAPOLEONEK.

- Uste diait hizela zimez mintzo egun
Bakia emaiten dawai condicionetan
490 Erresuma zathi bat behar dautak eman
Eta nahiz bakea ontsa finka dadien
Hire alaba dawai emaztetatz hartzen.

FRANÇOIS.

Napoleon ontsa ditut hartzen zure hitzak
Marie-Louise ene alaba daiteke zuretzat. (Traité de
[Vienna, 1809]).

Eskuak elgarri eman eta atheratzen dira. Galtchagorri eta muthila sartzen dira.

GALTCHAGORRIK.

- 495 Aspaldion nerayan erraiten, muthila,
Napoleon emeki bilduko zuila
Orai lehen emaztia debalde utzirik
Bigarren bat hartzera duk abiaturik.

MUTHILAK.

- Bayonan zuk errana ez du ez ahantzi
500 Beré tronua nori behar zuken utzi.

GALTCHAGORRIK.

Arrazoin duk, muthila, gizon abilek elgar
Hitz gutiez die conprenditu behar.

MUTHILAK.

Napoleonek orai artino beitzuen
Jainkoaren errana ontsa begiratzen

- 505 Hartarakotz Jainkoak hura du lagundu
Eta ez deusetarik hainbertze goratu
Orai denaz geroztik zu ganat itzultzen
Zure abisueri ontsa yarraikitzen
510 Zuk zure alidian behar duzu zaindu
Behar ordu orotan ederki lagundu.

GALTCHAGORRIK.

Nahi nkek lagundu ene alde dena
Hartakotz diat eginen nik ahal dudana.

Ontsa dantzatu ondoan badohazi ihesi. Napoleon eta Marie-Luisa sartzen dira eta yartzen. Gero heldu da Radet.

RADETEK.

- Mundu guzia zure peko delarikan
Errege handienak direnian ikharan
515 Napoleon, norbeit bada fier dagoena
Zure egitekoa ontsa etzakona.

NAPOLEONEK.

Nor duk hura, Radet?

RADETEK.

- Hura da Aita Saindua.
Zu beino gorago badauka burua.
Zur'anaya Jeromi berriz ezkontzeko
520 Lehen ezkontzia hautsi nahi'ezdako
Yende guziak haren haur direlakoan
Angies untziak ditu hartzen portuetan
Bertzalde zure contra hanitz duzu kheclni
Zeten duzun bigarren emazte bat hartu.

NAPOLEONEK.

- 525 Hola delakotz, Radet, saradi Erroman
Nahi diat hiri hura ene dadin izan
Aldiz Aita Saindua harturikan preso
Huna en'oinetara dautak ekharriko.

Hiruak atheratzen dira. Galtchagorri eta muthila sortzen dira.

GALTCHAGORRIK.

- Afera hank guziak ontsa dituk yoaiten
530 Beraz ene muthila alagera giten

Luzet dantzatu ondoan thesi badohazi, Napoleon sartzen da eta yarri ondoan, sartzen da Radet Aita Sainduarekin.

NAPOLEONEK dio (*chutitzen delarik*).

En'Aita Saindua ongi yin zirela.
Othoi egin dizazu nîk nahi bezala
Aberastasun eta ohore guziak
Condizione hortan ditazke zuriak.

AITA SAINDUAK.

- 535 Napoleon handia piazer nuke ontsa
Zure nahi osoa ein ahai baneza
Beinan zer ere Jainkoak beitu debekatzen
On hartzia alferretan da niri galdatzen
Aita Sainduak ere permetti ez dezake
540 Gizon batek ditzan izan bi emazte.

NAPOLEONEK.

Hots, Radet, ezarezkak hoi presondegian
Han erreflexione einendik agian (1812).

AITA SAINDUAK.

Horrela ditzulakotz zuraita tratatzen
Orai berean zitut eskumikuz yotzen.

NAPOLEONEK.

- 545 Eskumikuz ni yorik uste duzu naski
Enc soldadoeri harmak erorazi,

AITA SAINDUAK.

Hori du munduari geroak erranen.

NAPOLEONEK.

Radet, einzak errana, zertan ago hemen?

Radetek preso eremaiten du Aita Saindua.

NAPOLEONEK.

- Zer! nîk nausi naizenak Europa guziko
550 Aita Saindua ez dut othe bentzutuko ?

Napoleon alferretzen da, Galtchagorri eta muthila sartzen dira.

MUTHILAK.

Ah! orai content zira, Musde Galtchagorri,
Aita Saindua preso duilakotz czarri.
Hori da harri batez hiltzia bi chorri
Bafetik Napoleon hutsean erori

555 Bertzetik presoe'ezzaraziz Aita Saindua
Erligioneari hautsi dakozu burua.

GALTCHAGORRIK.

Agian ba, muthila, beinan fida ez nuk
Holako lehen ere frango ikhousi duk
Erligioneak iduri haizela finitzen

560 Aldiz geo berehala hazkarrago sortzen.

MUTHILAK.

Aita Saindu horrek zer nahuzu eindezan ?
Hirutan hogoi eta hameka urthetan.

GALTCHAGORRIK.

Eskumikuz yo dik zinez Napoleon
Lotsa nuk zerbeit kalte horrek ekhar dezon.

Luzer dantzatu ondoan badohazi ihesi. Napoleon sartzen da soldadoekin

NAPOLEONEK.

565 Ene gizon maiteak, haud'ezin bestia
Obligatua zauku gerla egitia
Rusiako Alexandrek yanez bere hitza
Hirngarrenekotz daut declaratzen gerla
Goazen beraz guziak curavez betherik
570 Bihurtuko girade Rusak garhaiturik
Handik giblakoan sarthurik Frantzian
Pausatuko ziezte bethikotz bakian.

Badohazi canporat. Galtchagorri eta muthila sartzen dira.

MUTHILAK.

Orai da mementoa orai, Galtchagotri,
Zure Napoleoni eiteko sokhorri.

GALTCHAGORRIK.

575 Zer nahi helduik ere oro doazi ontsa
Hartarakotz gaitezen hozkarioz dantza.

Luzer dantzatu eta badohazi ihesi. Minichtroak sartzen dira eta yartzen.

MINICHTRO BATER.

Ene minichtro lagunak, zer da iragaiten
Gerlako berririkan ez beitzauku yeiten
Horra sei hilabete Napoleon yuanik
580 Eta ez heitakigu batere berririk.

Ney sartzen da.

MINICHTROAK.

Ney, zure ikhousteaz atsein dugu hartzen
Zer berri deraukuzu gerlatik ekhartzen.

NEVEK.

- Zori gaichtoz gira izan garhaituak
Nigar eingarri dira gur'errekontruak
585 Oro chehe chehia nahi ditut erran
Franziak egia ontsa yakin dezan
Soldado ginenak phartitu gerlala
Zazpi ehun eta lautan hogoi mila.
Napoleon handia oron antzineko
590 Eta zortzi errege ziren haren peko.
Russó etsajetara girenekotz heldu
Hamarbat batailletan ditugu garhaitu
Laster sarthu ginen Mounskouko hirian
Han behar ginuera negua iragan.
595 Beinan Rostopchinek Rusuei du manatzen
Orotaik hiriari su eman dezoten
Hiria erre eta desertu heyetan
Yanbaririkan aski ez daite hatzeman
Napoleonek orduan manua emaiten
600 Lehenbain lehen oro hunat yen giniten
Batetik hotza eta bertzetik gosia
Ezin erran diteke hango desmasia.
Hotzez gizonak ziren hormatuak chutik
Harmak ere zazkoten erortzen eskutik
605 Gosez ziren milaka samariak hiltzen
Gizonek hek gordimik harrapaka yaten
Ur batean ginea hari iragaiten
Zubia bat batian zauku erdiratzen
Uretik ezin eikihiz hari ginelarik
610 Russianoak herrautsi gitu leihorretik
Doidoia da gelditzen hogoi mila gizon
Bakharrik heyekin da heldu Napoleon (1812).

Oro atheratzen dira. Galtchagorri eta muthila sartzen dira.

GALTCHAGORRIK.

Muthila erraten naian nola lotsa ninzen
Napoleoni zenbeit kalte yen zadien.

MUTHILAK.

- 615 Zertako ez dakozu laguntza ekharri.

GALTCHAGORRIK.

Zeren ezin beinuk nausi Jainkoari,

Dantzatu ondoan alheratzen dira. Napoleon sartzen da soldadoekin.

NAPOLEONEK.

- Ah! Ba garhaitu gitu ez Rusianoak
Beinan zori gaichtoz hotz eta guseak
Gure errekontru gaichtoz nahiz baliatu
620 Etsaiek berriz ere elgar dute aitu
Rusia Autrichia Prusia Baviera
Guziak ene contra abiatzen dira
Bateta bildu gabe, soldado maitiak,
Bederazka ditzagun attaka etsaiak.

Canporut abiatzearekin etsaiak sartzen dira eta bataillatu ondoan bis-
pahirur bundetan badohazi thesi etsaiak. Moreau han hilik utzirik.

NAPOLEONEK.

- 625 Zenbeit soldado gazte presan aitchaturik
Gerlara ereman ziuztet erdi buluzirik
Halarikan ere zuekin batean
Horra non garhaitu dudan hamarretan (1813).
Moreau traidoreoa etsaiek zena
630 Horra peza tiroz erditik egina.
Goazin oraino etsaien endotik
Bat bakharra ez dadin escapa bizirik.

Napoleon atheratzen da soldadoekin. Galtchagorri eta muthila dantzan
sartzen dira eta dantzatu ondoan.

GALTCHAGORRIK.

- Oh! oh! Moreau gaizoa, hor ago etzana
Gurekin ifernuan duk hire arima
635 Gorphutza gizentto hiz! finitzian mundia,
Hitaz egimen dugu ah! zer itzindia.

MUTHILAK.

Hori da hori dugun pokado ederra.

GALTCHAGORRIK.

- Hunek egimen zaukuk ederki sugarra
An artian dezagun hemendik eraman
640 Eta chortz zenbeit erreka barnetan.

Biek eremaiten dute Moreau. Senaturrak sartzen eta yartzen dira.

BATER.

Zer da hau? Napoleonek pentsatzen du eiki
Franziak nahi duela gerlan hari bethi.
Gauza orok baituzte beren negurriak.
Orai ere zom dira geriako berriak?

Napoleon sartzen da Marie-Louise eta bere hirur urtheko semea eskutik atxikitzen dituela.

NAPOLEONEK.

- 645 Ene yaun senaturrak hau da zorigaitza
Hirur egunez emik bataillabat gaitza
Bia hamarren contra gerlan hari gimen
Noiz et'ere beinute Saxonek trahitzen (Leipzig 1813)
En'armada gaichoa ihes emanikan
- 650 Etsaia badohazu sartzena Franzian
Hartakotz berchala gizonak harturik
Khenduko dut etsaia gure lurretarik
Emazte eta haur hau zaitzue begira
Ene tresor bakharra horiek beitira.
- 655 Ez niz berriz bizirik hunat bihurtuko
Non ez dudan etsaia ihes igorriko.

Lehenik Napoleon bera atheratzen da. Gero senaturrak Marie-Louisa eta hamarrarekin. Galtzagarri eta muthila sarthu eta luzur dantzatzen dira eta gero badohazi ihesi. Napoleon sartzen da Radetekin eta bere soldadoekin.

NAPOLEONEK.

Fonteneblon preso den Aita Saindua
Libra dezakan, Radet, duk ene manua (1814).

Radet atheratzen da.

NAPOLEONEK.

- Ene gizon maitiak gu guhoni gira
660 Aldiz gure etsaiak lau armada dira
Ez izan beldurrikan holako hanitzi
Lehen ere diotegu ihes eginarazi
Nahi litazke egun Franziaz yabetu
Hortarakotz ditugu behar hoik garhaitu.

Etsaia sartzen da ; batailatu ondoan, ihesi doha.

NAPOLEONEK.

- 665 Horra hor non etsaia badohan ihesi (1814).

Berriz ere batailatu eta etsaia ihesi.

NAPOLEONEK.

Berriz ere girade hoien dako nausi (1814).

Berriz ere luzeki batailatu ondoan, Napoleon bentzutua da. François, Alexandre eta Guillaume hurbiltzen dira Napoleonen gana.

ALEXANDREK.

Napoleon handia horra azkenian
Yainkoak hala nahiz, etsaien menian.

GUILLAUMEK.

Non othe dira orai zure larderiak?

FRANÇOIR.

670 Ene suhia, non dira zure balentriak?

NAPOLEONEK.

Ene zorte trichtearz etzaiatzela burla
Idurizait pietate merezi dudala
Zuen eskuetan niz zortheak emana
Nitaz egin zazue nahi duzuena.

ALEXANDREK.

675 Napoleon dautzugu emanen bizia
Hemen utziko tuzo haubr eta emaztia.
Eibeko islara zaitugu' eremanen
Zure bizi guzian han preso egonen
Untzia zure bilha yenen da portura
680 Hemendik phartitzeko yena da denbora.

NAPOLEONEK.

Ene gizon maitiak gerlako lagunak
Enetako hainbertze egin duzuenak
Huna non zuetarik naizen separatzen
Berechite hunek deraut bihotza zilhatzen
685 Nork erran sekulan lanak eta penak
Guk elgarrekilau iraun ditugunak
Gauza bat zen orai ene gutizia
Znek bederazka ontsa pagatzia
EZ diot egin beinan ene bizi guzian
690 Oro ziuztet izanen ene bihotzian
Zato, Petit yeneral, oron izenian
Bihotzaren erditik besarka zaitzadan (1814).

Besarkatu ondoan Napoleon eremaiten dute preso eta bertze bortha batetarik sartzen da Louis XVIII.

GUILLAUMEK.

Gu girelakotz orai Franziaren nausi
Errege dukezue Louis hemezortzi
695 Napoleonek geriez hartu eremuak
Bakotchari izanen dira bihurtuak (1814).

Oro atheratu eta sartzen dira Galtzagorri eta muthila.

MUTHILAK.

Galtzagorri maitia, zer erorikoa
Zure Napoleonek hor egiteko
Behar zinukeyen lagundu hobeki.

GALTCHAGORRIK.

- 700 Ene muthila erran behar daiat clarki
Haren etsai gehienak protestant heitituk
Aspaldion enekin adichkide dituk.
Hots, ene muthila, dantza giten ontsa
Nik nahi bezala aferak heitoatza.

Luzer dantzatu eta bidohazi ihesi. Ney sartzen da soldadoekin. Gern heldu da Louis XVIII.

LOUIS XVIII.

- 705 Huna berri handi bat, Ney marechala,
Napoleon Elbetik escapatu dela (1815)
Zenbeit soldado bakhar bidean bildurik
Pariseko alderat duk abiaturik
Hik behar dautak hura bidean baratu.

NEYEK.

- 710 Errege, behar zira ni baithan fidatu
Orai berean noha haren baratzera
Preso dut ekharriko zure oinetara .

Errege athera eta Ney soldadoekin abiatzen da eurri eta Napoleon heldu da lagun bat edo biek.

NEYEK.

Bara hor Napoleon preso zaitut hartzen.

NAPOLEONEK.

- 715 Ney maitia, hū niri hola hiz mintzatzen
Zer ahantzi dituka gur'adichkidantzak
Zoin yosiak ginituen elgarri bihotzak
Huna ene baphoa zuetan badea
Hil nahi likienik Enperadorea.

NEYEK.

Zur'alde yarri gabe ez naiteke egon.

SOLDADO GUZIEK, *betan oihuz.*

- 720 Biba enperadorea! biba Napoleon!

NAPOLEONEK.

Denboraik galdu gabe Ney marechala
Orai abia gaiten buruz Patisala.

Oro atheratu eta, Galtchagorri sartzen da eta Iura ontsa dantzatu de-nian heldu da muthila.

MUTHILAK.

Napoleon Parisen delarikan sarthu
Louis erregea da handik escapatu.

725 Ez dea hori eder?

GALTCHAGORRIK.

Ba ene muthila
Ni content nuk bizi ki gauzak youaitez hola.

Dantzatu ondoan badohazi ihesi. Napoleon sartzen da soldadoekin.

NAPOLEONEK.

Ene soldado maitiak, zer bozkarioa
Berriz ere zuekin bat izaiteko
'Uruski presondeitik heiniz eskapatu
730 Atsegün handirekin Frantziak nu hartu
Etsaiek Legi gaichtoz leinute ikhousten
Anglerak eta Prusak geria dautet eiten
Curaya hartzeko erran zuen burueri
Napoleon duzuila zuen antzindari.

Angelesak eta Prusianoak sartzen dira eta ihesi badohazi.

NAPOLEONEK.

735 Etsaia duzu haurrak oñoki garbitu (Ligny).

Berriz ere bataila, etsaia ihesi.

NAPOLEONEK.

Etsaiak ene haurrak ihesa du hartu (Quatre-Bras).

Berriz ere bataila, Frantsesa ihesi.

GUILLAUMEK.

Abantzu ginuen bataila galdua
Noiz beita Napoleon izan trahitua (Waterloo 1815).

Ikhouszazu Napoleon egun zer gisara

740 Erortzera yen ziren gure eskutara.

NAPOLEONEK.

O zer ene lastima! zer ene zorthia!
Hoin gora nintzelarik hoin apal yaustia
Hoinbertze aldiz zuik garhaitu ondoan
Horra orain non nizen zuen eskuetan.

WELLINGTONEK.

745 Ez da sobera laster ethori eguna
Zointan hartu beitugu gerlako lehoina

- Berriz presondegitik ez eskepatzeko
Itsas baten erdian zaitug'ezarriko
Han oroz gabetua oroz ahantzia
750 Zure biziaz zazu ein penitentzia
Gizon hori zazue iganaz untzira
Eta preso eraman Santa Helenera (1815).

Napoleon eremaiten dute preso. Gero ora atheratzen dira. Galtchagorri eta muthila sartzen dira dantzan.

GALTCHAGORRIK.

Ene muthil sankarra benden oraikoan
Napoleón diagu zangu petan eman.

MUTHILAK.

- 755 Jainkoa duenean hark abandonatu
Ber'reresumaz die etsaiek gabetu.

GALTCHAGORRIK.

Ez nuk oraino content arima beitz hura
Ahalaz nahi diat bildu ifernura.

MUTHILAK.

- Hori ez dat uste, Musde Gaitelagorri,
760 Gizon barek behatuz bere buruari
Arrazoinamendu hau bidedu eginen
Lehen Jainkoa aide orai contra nuen.
Hark abandonatu nu zeran dudan utzi
Berriz ere behar dut ezagutu mausi.

GALTCHAGORRIK.

- 765 Ilkhousiko diagu. Hots denbora pasa
Biak eigarrekin berriz giten dantza.

Luzet dantzatu ondoan hadohazi ihesi. Napoleon ohean, Morbihan al-dean.

NAPOLEONEK.

- Huna beraz sei urthe preso nauketela
Nik zer dudan pairatu ez daiteke khonda
Berrogoita hamabi urthe bethetzean
770 Jainkoari beitakot condu behar eman (1821)
Hemen egon denboran izan dut aisia
Orts'etsaminatzeko ene biz'igana
Urusa ez banu gerla hain maithatu
Gizonen bizia hain guti prezatu
775 Plazer eta ohorez burua hantua
Ah! urusa ez banu ahantzi Jainkua
Ah! ez banu-hartuz bertze emazte bat

- Munduari eman eskandal handi bat
Urusa bereziki, hark nu galarazi,
780 Aita Saindua ez bami preso czarrazi
Beinan ene huts guziak aithortuz orori
Barkhamendu gaiddatzen diot Jainkoari
Montholon maitia, ene lagun ona
Entzunezak ontsa nik diotadana
785 Cofesatu naizeiakotz contentik nuk hiltzen
Hiltzean gauza bera daiat desiratzen.
Orai aurthikitzean ene azken hatsa
Huna ene mihiak dion azken hitza
Ni baithan etsenplua har beza munduak
790 Guziak dituela garhaitzen Jainkuak.

AZKEN PEDEIKUA.

Erdian.

Hunat zieztelakotz nonbre handitan yen
Guziak zaituztegu erremerziatzen.

Eskuin.

Zien atenzoneaz bagir'abusatu
Behar deraukuzue guziek barkhatu

Erdian.

795 Napoleonen bizia ontsa condatzeko
Guk beino'hobeagorik zitaken hartzeko.

Esker.

Guk egin hutseri ez egin casurik
Ezbeitugu bilhatu plazer eitia beizik.

Erdian.

Orai zaituztegu oro comitatzen
800 Dantzan hartzekotzat hunat igaziezten.

AKHABANTZA.



